

2024: AURREKONTUAK ETA EGITASMOAK

Zaldibian, 2024ko urtarrilaren 23an

BATZARREKO GAIAK

- 2024ko udal aurrekontuak: azalpen arina
- Galderak, zalantzak, ekarpenak...
- Elkarlanerako deia

2023/2027 Udalbatzaren eta ordezkaritzen egituraketa

- Udalbatzako kideak: EH Bilduko 6 kide eta EAJ-PNVko 3 kide.
- [Udalbatza bilkurak](#): hilero, azken ostegunean batzar aretoan.
- Udal Gobernu bilerak: asteartero, 19:00etan udaletxean.
- Zaldibiako Udala kide den [organoetako ordezkaritzak](#)



*Herri
Gizagaria*

Herri antolamendua
Mugikortasuna,
Energia, Elikadura,
Lana, Zerbitzuak,
Ingurumena,
Etxebizitza

*Herrigintza
Kultura*

Euskara, Kultura,
Kirola, Gazteria,
Hezkuntza,
Auzolana, Memoria

**IZENA EMAN
SARETU DEZAGUN
HERRIA**

*Zaintza
Komunitatea*

Berdintasuna,
Aniztasuna, Zaintza,
Ongizatea,
Herritarrak



**ZALDIBIAKO
UDALA**



HERRI BIZIGARRIA

ERRONKA: bizitzea merezi duten bizitzak, herria eta burujabetza, egunerokoan eragiten diguten gaien eraldaketan sakonduz.

Gaiak: Herri Antolamendua, Zerbitzuak, Elikadura, Lana, Etxebizitza, Energia, Mugikortasuna, Ingurumena

Udal arduradun politikoak: Ioritz Berra Juaristi eta Xabier Iraeta Mendizabal

Udal arloak: obra eta zerbitzuak, arkitektoa (beste sail batzuk zeharka ere bai)

Herriko eragileak eta herritarrak, zein gaikako loturak.




HERRI BIZIGARRIA

- Bizitzea merezi duten bizitzak, herria eta burujabetza ditugu helburu. Egunerokoan eragiten diguten gaien eraldaketan sakonduz, honakoak aurtun garatuko diren proiektu batzuk:
- Herriko Plaza: eraldaketaren lehen fasea gauzatzea, auzolana oinarri (18.000€ + iaztik gordetako 23.000€).
- Mugikortasun Plana aurkeztu eta aldaketak gauzatzen hastea (30.000€)
- Goizane Eraikina: Kixkurguneren irekiera eta instalazio fotovoltaikoa teiltuan (58.000€)
- Landa Lurren Digitalizazioa eta Bertako Basoaren sustapena (17.000€)
- Ekonomia Zirkularrean sakonduz: berrerabilpena, konposta, hondakinen birziklatzea-bilketa-tratamendua (194.547,16€)
- Bideetan, ur-sarean eta eraginkortasun energetikoan hobekuntzak (67.000€)



HERRI BIZIGARRIA



HERRIGINTZAREN KULTURA



ERRONKA: herritik eta herriarentzat, herri-mugimendua indartu eta herrigintza grina piztu, berreskuratu eta elikatzea.

Gaiak: Euskara, Kultura, Kirola, Hezkuntza, Auzolana, Memoria

Udal arduradun politikoak: Eztitxu Mujika Mariezkurrena eta Maialen Mendizabal Luluaga


Udal arloak: Kultura-Kirola-Euskara zerbitzuak (beste sail batzuk zeharka ere bai)

Herriko eragileak eta herritarrak, zein gaikako loturak.

HERRIGINTZAREN KULTURA



- Herriatik eta herriarentzat, herri-mugimendua indartu eta herrigintza grina piztu, berreskuratu eta elikatzea da eremu honen xedea. Hemen urte honek dakartzan egitasmoak:
- Luberriko Kirol Aretoa egokitzea, ariketa fisikorako makineriaz hornituz (62.000€)
- Kultur eta Kirol taldeei diru-laguntzak eta baliabideak bideratzea (36.450€)
- Gaztetxoen Kabi berritua abiatzea (20.000€)
- Zaldibiako Ondare Immaterialaren inbentarioa egitea (30.000€)
- Jaiak, Kultur eta Kirol Ekintzak, Musika Eskola zerbitzua (141.500€)
- Euskara ikasketak, tokiko euskarazko hedabideak, UEMA eta laguntzak (25.110€)



HERRIGINTZAREN KULTURA

ZAINTZA ETA KOMUNITATEA

ERRONKA: Herritarra oinarri izanik, elkarren arteko harreman parekide, anitz, hezitzaile eta osasuntsuak sustatzea.

Gaiak: Berdintasuna, Aniztasuna, Zaintza, Ongizatea, Herritarrak

Udal arduradun politikoak: Maider Castellano Etxeberria eta Katrin Lizarralde Nazabal

Udal arloak: berdintasuna eta gizarte zerbitzuak (beste sail batzuk zeharka ere bai)

Herriko eragileak eta herritarrak, zein gaikako loturak.



ZAINTZA ETA KOMUNITATEA

Herritarra oinarri izanik, elkarren arteko harreman parekide, anitz, hezitzaile eta osasuntsuak sustatzea du helburu lan-eremu honek.

Herri bizigarriko eta Herrigintzaren Kulturako egitasmoek ardatz izango dute beti komunitatea indartu eta harremantzea. Horretaz gain, eremu honi zuzenean dagozkien hainbat egitasmo ere aurreikusi dira, 2024rako:

- Berdintasuna sustatzeko ekintzak gauzatzea eta zaintza ereduan sakontzea (20.000€)
- Gizarte Ongizateko ekintzak burutu eta Elkarteei laguntzak bideratzea (16.925€)
- Babesgabetasun egoerei erantzuna ematea (34.000€)
- Aniztasuna lantzea (9.900€)
- Gizarte Zerbitzuen mapa garatzea (20.000€)





ZAINTZA ETA
KOMUNITATEA



DIRU SARRERAK

Hauek dira aurtengorako aurreikusi diren diru-sarrera nabarmenenak:

Ohikoak:

- Udal Foru Funtza, 1.459.105€
- Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko zerga, 167.000€
- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga, 137.000€
- Hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuagatiko tasa, 125.000€

Ez ohikoak edo bereziak:

- Landa Herriak diru-laguntza (GFA), Luberri aretoa egokitzeko, 37.042,73€
- Kirol ekipamenduak diru-laguntza (GFA), Luberri aretoa egokitzeko, 20.343€
- Erein diru-laguntza (EJ), Goizaneko instalazio fotovoltaikoa egiteko, 30.000€
- Ondare Saileko (EJ) diru-laguntza, Zaldibiako Ondare immaterialaren inbentarioa egiteko, 20.000€
- Landa Lurren digitalizaziorako (GFA), 7.000€

UDAL LANGILEGOA

Azken urteetan bezala eta kontratazio zuzena ardatz izanik, aurrekontuaren ia %40 udal langilego gastuetara bideratuko da.

Nabarmentzekoak dira aurten:

- Arkitektoa udal lanpostu izatea onartu dela, urtarrilean behin-behinean betetzea espero delarik (%60ko lanaldian)
- Gizarte Zerbitzuen barruan, Etxez Etxeko zerbitzuaren indartzea.
- Kultur eta Kirol dinamizatzailearen eta Peoi Balioanitzaren jubilazioa tarteko, lanpostu hauek ere behin-behinean bete dira.
- Idazkari-kontuhartzaile lanpostua, behin-behinean bete eta egonkortze prozesua.

ZALDIBIA Herri Giza



Herritar eta eragile
aliatuak – elkarlan
sarea osatzen

Gai zehatzetara joanez, zuk non
egin nahiko zenuke ekarpena?



Herritar eta eragile
aliatuak – elkarlan
sarea osatzen

Gai zehatzetara joanez, zuk non egin
nahiko zenuke ekarpena?

ELKARRIZKETA IREKIA

ESKERRIK ASKO

